

• **Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Gure proiektua ondo funtziona ahal izateko gauzarik garrantzitsuenak publizitate erakargarria eduki behar dugu eta horretarako hasiera ona eman behar diogu gure proiektuari. Dakigunez, funtsezko jarduerak enpresa batek egin behar dituen jarduerak dira, negozioak funtziona dezan. Honen



aurrean, arazoak egongo direla argi dago eta bidean zehar konpondu beharko genituzke. Ekoizpena oso garrantzitsua da. Ondasunak eta zerbitzuak sortzeko batez ere. Guk bizikleta ekologikoak behar ditugu produktuak garraiatzeko. Informazioari eta teknologiari esker ekoizpen-prozesuetan beharrezkoak diren baliabideak modu eraginkorragoan erabil daitezke, produktu edo zerbitzuen kalitatea hobetuz eta produktibitatea handituz, honen ondorioz prezio merkeagoa eskuratuko dugu.

Beste aldetik, gure enpresak dituen gastuak ezagutu eta bakoitzaren aukeren berri izan behar dugu ondo funtzionatzeko. Gainera, gure proiektuak zerbait ezberdina eskaintzen du eta zerbait desberdina denez, bezeroek gure negozioa beste baten aurrean aukeratuko dutela pentsatzen dugu.

Ondo funtzionatzen badu, ikaragarritzko emaitzak ekarriko ditu. Lehen esan dudan bezala, publizitatea ezinbesteko modu bat da gure ideia erakartzeko; izan ere, hartzaileari erakarri egiten dio. Pixkanaka, ezagunagoak bihurtuko gara eta diru gehiago eta jende gehiago lortuko dugu. Modu honetan amaieran, aurretik egin ez den enpresa berritzaile bat lortuko dugu.

